

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**JARDUERA FISIKO ETA KIROLAREN ESTEREOTIPO  
ETA GENERO ROLAK LANDUZ, IKASLEEN AUKERA  
ASKATASUNA BERMATZEKO PROPOSAMENA**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Orbegozo Guerra, Naia.

ZUZENDARIA: Urrutia Gutierrez, Saioa.

2021

Egungo gizartean etiketatzen diren genero-rol eta estereotipoak ikasleen pentsamendu, jarrera zein iritzietan eragina dute. Horren ondorioz, ikasleek gizartean berdintasuna bultzatzeko proiektu desberdinak egiten dituzte ikasgai askotan. Horiek horrela, kirol arloan ere lanketa sakon bat egin behar da, euren pentsamendu eta jarrerari arreta jarriaz.

Gratu Amaierako Lan honetan, Lehen Hezkuntzako ikasle batzuekin lanketa bat aurrera eramán da. Prozesuak honako pauso hauek izan ditu: galdetegia, esku-hartzea eta balorazioa. Lehenik, jarrera sexisten gaineko galdetegi bat bete dute ikasleek, hain zuzen ere, kirolean genero- eta rol- estereotipoen pentsamenduaz hausnar dezaten. Ondoren, haien emaitzak kontuan hartuta, beharrezkoa zen esku-hartze bat proposatu da. Amaieran, ebaluazio errubriken bitartez, haien lana baloratu da.

*Gorputz Hezkuntza, kirola, genero-rola, estereotipoa, gorputz adierazpena*

----

Las etiquetas que se establecen a los distintos estereotipos y roles de género afectan en las opiniones, actitudes y comportamiento de los estudiantes. Es por eso que los estudiantes trabajan la igualdad en la sociedad en muchas asignaturas. De esa manera, es importante hacer ese mismo trabajo en el deporte y poner hincapié en los pensamientos y actitudes que ellos exponen.

En este Trabajo de Fin de Grado, se ha trabajado con un grupo de Educación Primaria. El proceso ha tenido tres fases: encuesta, intervención y valoración. En primer lugar, se les ha hecho a los alumnos una encuesta sobre actitudes sexistas, para que pudieran reflexionar sobre los estereotipos de distintos géneros y roles en el deporte. Después, y teniendo en cuenta sus resultados, se ha propuesto una necesaria intervención. Por último, teniendo en cuenta las tablas de evaluación, se ha valorado su trabajo.

Educación Física, deporte, rol de género, estereotipos, expresión física.

----

The labels that the society establishes for the different stereotypes and gender roles affect the opinions, attitudes and behavior of the students. That's why students work for equality in society in many subjects. In this way, it is important to do the same work in sports and to emphasize the thoughts and attitudes that they expose.

In this End of Degree Project, we have worked with a group of Primary Education students. The process has had three phases: survey, intervention and assessment. Firstly, the students were surveyed on sexist attitudes, so that they could reflect on the stereotypes of different genders and roles in sport. Afterwards, and taking into account its results, a necessary intervention has been proposed. Finally, taking into account the evaluation tables, their work has been evaluated.

Physical Education, sport, gender role, stereotypes, physical expression.

## Aurkibidea

1. SARRERA .....	5
2. JUSTIFIKAZIOA .....	6
3. MARKO TEORIKOA .....	8
3.1. Estereotipoak eta genero rolak.....	8
3.1.1. Definizioa .....	9
3.1.2. Eboluzio istorikoa.....	9
3.1.3. Estereotipoak eta genero rolak gaur egungo gizartean .....	10
3.1.3.1. Komunikabideetan .....	10
3.1.3.2. Kirolean.....	13
3.1.3.3. Egunerokotasunean.....	14
4. HELBURUAK .....	16
5. METODOLOGIA.....	17
5.1. Parte hartzaileak .....	17
5.2. Tresna.....	17
5.3. Prozedura.....	17
6. EMAITZAK .....	19
7. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA .....	23
8. ESKU-HARTZEA.....	24
9. MUGAK ETA ETORKIZUNERAKO IRADOKIZUNAK.....	30
10. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	31
11. ERANSKINAK .....	33
I. ERANSKINA: Ikasleek betetako inkesta.....	33
II. ERANSKINA: Esku- hartze proposamenaren saioak.....	36
III. ERANSKINA: Ebaluazio tresnak .....	44

## 1. SARRERA

Eskola gaur egungo gizartearen islada da, bertan ematen diren genero bereizketa eta estereotipoak sortzen dira. Haurrek haien egunerokotasunean ikusten duten jarrera oro eskolan errepikatzen dute, haien ikaskide, irakasle eta ingurukoekin harremantzerako garaian.

Soin heziketaren bidez ikasleen haien sentimendu eta pentsamenduak adierazteko aukera dute, haien benetako izaera erakutsiz. Horregatik, arlo hau garrantzitsua da genero eta rol bereizketa horiek behatu eta beharrezkoa den lanketa egiteko, genero berdintasuna lortzeko. Kasu honetan, lanketa hori aurrera eramateko gorputz adierazpenaz baliatuko naiz, haurren askatasuna bermatzeko eta aukeratzeko libre senti daitezen.

Hasieran, lanketa eibarko Iturburu ikastetxean egitea zen. Covid-19aren ondorioz, ezin izan dut bertara joan saioak aurrera eramatera. Beraz, galdetegi bat pasatu nuen eta lortutako emaitzak kontuan hartuz esku-hartze proposamen bat sortu nuen. Nahiz eta ezin izan proposamen hori aurrera eraman, ebaluazio errubrika desberdinak sortu ditut prozesuan eta amaiera ikasle zein irakasleek bete beharrekoak.

Zaila da egungo egoeran lanketa zehatz bat egitea baina lortutako emaitzak behatuz bukaeran ondorioak ere zehaztu ditut.

## 2. JUSTIFIKAZIOA

Genero rola, estereotipoak eta jarrerak sexistak gaur egun ahoz-ahoz dabilzan gaiak dira. Askok diote zeharka bada ere gazteenei txikitatik irakasten zaizkiela betebeharreko eredu edo rola. Komunikabideak, familia eta ikastetxeak dira ikasleen informazio iturri nagusiak, eta haiek entzuten eta ikusten duten guztia xurgatzen dute. Honek haien jarrera eta pentsatzeko moduan izugarritzko eragina du, bizitzako arlo eta eremu desberdinetan.

Argi dago genero rola eta estereotipoak gizarteak sortu dituen etiketak direla, pertsona bakoitzaren ezaugarrien arabera ezarriak. Gaizki ikusia dago zure rola ez det beste bat beste ez gero, edota ohikoa ez den ekintzaren bat burutzen baduzu. Horregatik, funtsezkoa da hauek alde batera uzten jakitea, berdintasuna bermatuz. Gizabanako oro errespetatzea ezinbestekoa da, bakoitzaren ezaugarriak desberdinak direla onartuz. Elkarrekintza honetan funtsezkoa da errespetua, elkartasuna eta enpatia. Lehen Hezkuntzako aroa balio hauek lantzeko momentu egokiena da, informazioa jaso eta errealitatera eramateko unea baita. Ez badizkiegu txikitatik ideia hauek ulertarazten estereotipo eta genero roletan eroriko dira, inguruan ikusten dituzten orotan. Gainera, etorkizunean zailagoa izango da haien ideiak aldatu eta berdintasun hori lortzea. Hori dela eta, eskolak eta familiek duten papera ezinbestekoa da, egunerokotasunean landu beharreko balioak baitira.

Haurrei balio hauek azaltzeko edo buruan dituzten ideiak desegokiak ordenatzen laguntzeko komunikazio egokia eta argia izatea derrigorra da. Bestalde, haien pentsamenduak eta ideiak ulertzeko modua oso garrantzitsuak dira. Argi utzi behar zaie ez daudela “nesken” edo “mutilen” gauzak, bakoitza nahi duena izateko libre dela, gustatzen zaiona aukeratzeko libre, bizitzako aspektu guztietan, ondoko pertsonari minik ematen ez dion bitartean. Oso beharrezko iruditzen zait askatasun hori dutela adieraztea, haien nahiak bete daitezkeela sinestaraztea.

Nahiz eta gizarte moderno, ireki eta anitz batean bizi garela uste, errealitatean ez da horrela. Berdintasuna ez da nagusi, argi eta garbi ikusi dezakegu gure inguruan, eta izan beharko litzateke. Horregatik, horri bultzada bat egiteko hezkuntza eremu ezinhobe eta beharrezkoa da, estrategia desberdinak erabiliz. Nire aburuz, umeei irakasteaz gain, pertsonak berdintasun batean hezteko eremua da eskola.

Nire bizitza osoan zehar, berdintasuna oso garrantzizkoa dela esan didate, guztiok berdinarik garela aipatuz. Baina bizitza errealean jasan ditudan esperientziak kontuan hartuz, ikusi dut ez dela horrela, ez dela teoria guzti hori egi bihurtzen. Tamalez, oraindik ere, emakumea

bere ezaugarriengatik, emakume izateagatik; edonon dela ere, gizona baino pausu bat atzerago doalako.

Horregatik, ikasle bakoitzari aukeratzeko libre direla adieraztea ezinbestekoa iruditzen zait, ezaugarriak alde batera uztea, etiketak apurtzea. Bakoitzak bere bizitzan zehar nahi duen bidea eraikitzeko gai izan daitezen, bai ibilbide pertsonalean zein profesionala, haien buruarekin eroso sentitu daitezen, emozional zein psikologikoki.

### 3. MARKO TEORIKOA

#### 3.1. Estereotipoak eta genero rolak

Zenbait lanek erakutsi dute genero-estereotipoek gizartean duten eragina. Estereotipo horiek zaintza eta logika proposatzen dute feminitate gisa eta lehiaketa eta kontrola maskulinitate moduan (Rebollo-Catalán, Ruiz-Pinto y García-Pérez, 2017). Familiak, berdinaren arteko taldeak, komunikabideak eta eskolak dira ideia estereotipatu horiek sozializatzen dituzten sortzaile nagusiak. Eskola testuinguruan, Gorputz Hezkuntzako saioetan, genero-irudikapenen arteko desberdintasunak nabarmenagoak dira.

Estereotipoak pertsona baten ezaugarriei buruz sozialki partekatutako uste multzoa izaten dira, talde zehatz batek ustez duen bereizgarri jakin bat handitu egiten dutelarik (Morales y Moya, 1996). Gehien jasaten diren estereotipoak genero-estereotipoak eta arraza-estereotipoak dira.

Ikerketa askoren arabera, genero-estereotipoei dagokionez, desberdintasun handia dagoela diote emakume eta gizonei esleitzen zaizkien ezaugarrietan. Gizonezkoei ezaugarri positibo gehiago esleitzeko joera dago emakumeekin alderatuz, eta pertsonak generoaren arabera bereizten dira (López y Morales, 1995).

Gizonei eta emakumei bereizten dien ohiko ezaugarriak gaitasunak, interesak eta nortasuna bezalakoak dira. Moya (1985) -k dionez, azken urteotan genero-estereotipoak aldatuz doaz, gizon eta emakumeen estereotipoen artean magultasun eta bateratasun handiago bat ikusten delarik. Hala ere, gure gizarteko estereotipo nagusia gizon dominante, indartsu eta aktiboarena izan da, emakumea pasiboa, ahula eta sentibera izan den bitartean. Estereotipoen banaketa honek, gizarte-irizpideak ekarri zituen, gizabanako bakoitzak bere betebeharrak, debeku eta tabuak zeintzuk ziren interpretatuz, eta norbanako bakoitzak bere rol irizpide nagusien arabera jokatzeko.

Rolak espero ditugun jokaerak dira. Sexu-rolak sexu jakin bat duen pertsona batek egin dezakeenari dagozkio; biologikoki, adibidez, emakumeek haurrak izan ditzakete. Genero-rolak gizarte jakin batean sexu jakin baterako egokitzen jotzen diren jokabideei dagozkie. Genero-rolak kulturalki jasotakoak dira eta jarrera eta balore desberdinak dituzte, hala nola, emakumeek negar egin dezakete, gizonezkoek ez, emakumeek ezin dute futboleko jolastu, gizonezkoek bai etab. (Murray y Matheson, 1993).



### 3.1.1. Definizioa

Estereotipoak talde sozial baten ezaugarri diren eta pertsonak talde sozial desberdinetan sartzea ahalbidetzen duten sinesmen positibo edo negatiboen multzoa dira. Negatiboak direnean, aurreiritziarekin lotzen dira, hau da, egiazkoak direla behar besteko ebidentziarik gabe, norberarenak ez diren beste talde batzuetako pertsonekin erlazionatzen diren iritziak, diskriminazioa eragiten duten emozio negatiboak eta uste irrazionalak barne, oro har aukerak mugatuta eta talde minoritarioaren eta menderatzailearen arteko harreman ezabagarriak sortuta (Allport, 1954, Pettigrewk aipatua, 2008; Jiménez-Matarrita, 2008).

Zehazki, generoa gizarte-aldagai garrantzitsuenetakotzat jotzen da, gizarte-elkarreraginen bidez eraikitzen baita, eta, aldi berean, horiek arautzen baititu, gizarte-mundua oinarrizko bi kategoriatan banatuz: gizonak eta emakumeak (Rodríguez & Toro-Alfonso, 2002). Horrela, ezaugarri bat baino gehiago, sistemaren ordena soziala eta munduaren interakzioak neurri handi batean zehazten dituen aldagai bat da (Correll, Thébaud & Bernard, 2007). Sexu-ezaugarriekin bat egiten duenean, genero-rol ez hitz egiten da, gizonak eta emakumeak izan behar dutenari buruzko sinesmen-multzo egituratu gisa ulertuta, azalpen biologikoetatik harago (De Lemus, Moya, Bukowski & Lupiañez, 2008).

### 3.1.2. Eboluzio istorikoa

Genero-ikuspegia hainbat diziplinatan (historia, literatura, hizkuntza, arteak, politika, komunikabideak, erlijioa, etab.) aplikatzeak kontzeptu beraren zentzua zabaldu eta korapilatu zuen 70eko hamarkadaz geroztik: generoa honela definitzen joan zen: estatusean, banakako esleipenean, pertsonen arteko harremanean, kontzientziaren egituran, gizartea antolatze modu gisa, ideologia gisa edo hizkuntzaren efektu soil gisa. Zentzumenean eta planteamenduen aniztasun hori ez da teoriko feministentzat kezka bereziko iturri izaten hasten, harik eta 80ko hamarkadan generoaren erabilgarritasuna bera kategoriatan analitiko gisa zalantzan jarri zen arte, emakumeen zapalkuntzaren egoera argitzeko eman zitzaion aparteko gaitasunarekin: orain, koloretako emakumeak eta lesbianek beren zapalkuntza-esperientziak jartzen zituzten estalkiaren gainean, generoaz harago. Arrazarekin, klase sozialarekin eta orientazioarekin zuten zerikusia. Bestalde, eta marko postmodernoetatik, generoa "fikzio totalizatzaile" jotzen hasi zen, elementu heterogeneoetatik abiatuta (Hawkesworth 1997) batasun faltsu bat sortzen zuena.

Historiaurrea, urruneko eta are urruneko testuinguru gisa denboran zehar, esparru egoki gisa aurkeztzen da hainbat adierazpenetan, sexuen arteko harremanei eta genero-esleipenei dagokienez gaur egungoetatik oso desberdinak diren agertokiak planteatzeko, eta hori matriarkatuaren ideian sinbolizatuta dago. Historiaurreko emakumeen ahultasun- eta

pasibotasun-irudia, gaur egun oraindik ere badirauena, pentsamendu patriarkal batean oinarrituta dago, eta historiaurreko testuinguru sexistetan girotutako irudi eta eszena-ereduen erreproduzioak elikatzen jarraitzen du. Tradizioz rol maskulino eta femeninotzat hartzen diren rola zalantzan jartzen jarraitu behar da, eta Historiaurrera eraman behar dira rol horiek bermatzen dituzten frogarik gabe, eta, kasu horretan, jarduera ekonomikoen aukera bi sexuentzat planteatzea eta aztertzea (Moser, 1993). Emakumeen lana aintzat ez hartzeaz gain, ikuskera horiek genero-rol jakin batzuk egozten dituzte (Spector, 1999; Owen, 2005). Kasu askotan, interpretazioek ideia garaikideak islatzen dituzte, emakumeen espazioa etxekoa dela adierazten dutenak, eta, beraz, ez bestea, mundu "erreal", "kanpokoa", jarduerarena eta lanarena, gizonezkoen eremu natural gisa ezarri dena. Azkenean, sexu bati edo besteari hainbat jarduera ekonomiko (ehiza eta arrantza, abeltzaintza, eraikuntza eta teknologia desberdinen garapena) esleitzetik kanpo jarraitzen dute emakumeek, eta horrek berekin dakar jarduera horiek egiteko gai ez direla onartzea.

### **3.1.3. Estereotipoak eta genero rola gaur egungo gizartean**

#### **3.1.3.1. Komunikabideetan**

Komunikabideek errealitate sozialaren irudikapenak eskaintzen dituzte. Landu beharreko gai eta arazoei buruzko interes edo lehentasunei erantzuten diete, eta eraginak ingurunearekiko dugun pertzepzioa baldintzatzen du. Are gehiago, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna, genero-estereotipoen bidez eragin negatiboa dute adin goiztiarrenetatik. Norberaren nortasuna eraikitzea eta gizarte-eredu normalizatutzat erakusten duten errealitatea onartzea, desberdintasunera, diskriminaziora eta genero-indarkeriara eraman dezakeena da (López 2007; Simón 2010)

Genero-estereotipoak honako hauei esleitutako sinesmen orokortuak dira: emakumeak eta gizonak, familiarengandik, komunikabideengandik eta eskolarengandik jasotzen den pertzepzio partzial baten bidez. Emakumeak ikusarazteko ahalegin handiak eginez (Francke eta Ojeda 2013).

Gizonei lotutako ezaugarriak independentziarekin lotuta daude. Logika, jarduera fisikoa, anbizioa, beren buruarekiko konfiantza eta objektibotasuna. Emakumeekin lotutako ezaugarriak, berriz, gozotasunarekin, lokututasunarekin, itxurarekiko interesarekin edo segurtasun-beharrarekin lotuta daude. Tradizionalki, ezaugarri maskulinoak positibotzat jo izan dira, eta femeninoak negatibotzat. Jakina, ikuspegi hori alboratuta dago, baina komunikabideen bidez transmititu ohi dena izaten jarraitzen du, eta, bistan denez, ebatzi egin behar da.

Herritarrok etengabe jasotzen ditugu genero-estereotipoak. Bitartekoak naturaltasunez hautematen dira, mezuaren parte dira, eta horrek agerian uzten du hedabideen boterearen kontzientzia sortzeko beharra, bai konbentzionalak bai digitalak (Mateos 2007). Ildo horretan, telebista iritzi publikoaren informaziorako eta mobilizaziorako bideetako bat da boteretsuagoak, horren bidez estereotipo eta botere-mekanismo ugari transmititzen direlarik (Núñez 2005).

Nahiz eta zenbait lanek (López et al., 2008) adierazten duten emakumeak gero eta botere publiko handiagoa hartzen ari dira eta ezaugarri gehiago hartzen. Tradizioz gizonei esleitutakoak, egia da oraindik ere ikus-entzunezko komunikazioa: emakumeek gizartean duten ikusezintasuna errepikatzen dute. Politikoa eta kulturala, androzentrismoa bezalako elementuen bidez maskulinoa protagonista eztabaidaezin gisa, hizkuntza sexista edo generoa (Panke eta Amado 2012; Oualalou 2012).

Gizarteak espero du gizonek eta emakumeek genero-rol espezifikoak hartzea eta gauzatzea, ezarritako estereotipoei jarraituz. Mendebaldeko gizarteetan, gizonengandik indartsuak, independenteak eta atletikoak izatea espero da; emakumeengandik, berriz, isilak, esanekoak eta "zaintzaile" erakargarriak izatea. Gizarteak ezarritako "genero-ordenaren" jarraipena eskatzen du.

Kirola eta jarduera fisikoak arlo espezifikoak dira, eta horietan ebaluatu eta genero-estereotipo tradizionalak aztertu dira. Genero-estereotipoak alderatzean emakume tradizionalak XXI. mendeko emakumeekin, argi dago emakumeak kirolariak kirol munduan ezartzen hasi dira. Bere gaitasuna emakumeen itxura fisikoari, gaitasun atletikoari eta kirol-partaidetzari buruzko oztopo sexistei eta nozio negatiboari aurre egitea agerikoa da. Kirolean parte hartzea.

Hala ere, egia da emakumeen estereotipoak tradizionalak dira nagusi eta eragiten jarraitzen dute (Wilde, 2007). Tradizionalki, emakumeek jantziak erabili, janaria prestatu eta garbitu, seme-alabak hazi, gorputz eder eta delikatu bat mantendu eta pasibo, moral eta puruak mantendu behar izatea espero zen (Griffin, 1998; Sherrow, 1996; Woolum, 1998; Zimmerman eta Reavill, 1998). "Sexu ahultzat" hartzen dira fisikoki, mentalki eta emozionalki.

Emakumeak estereotipatuak izan dira, femeninoak balira bezala. Feminitatea, Sherrowren arabera (1996), itxuraz eta portaeraz femeninoa dena da (hau da, erakargarria, kontu handiz prestatua eta zaintzaile otzanak). Feminitatearen printzipioa aplikatzen denean, emakumeek gizonek eta emakumeek gizartean gauzatzen dituzten genero-rol espezifiko horiek errepikatu

behar izaten dituzte. "Feminitatearen" itxaropen horiek direla eta, emakumeak disuadiatu egiten dira pisuak ez altxatzeko, izerdia botatzeko, oldarkorrak izateko eta kirol-jardueretan parte hartzeko eta lehiatzeko. Horren arrazoi nagusia da gizarteak espero duela emakumeak "dama" izatea, ez dutela ezaugarri maskulinoak jotzen diren ezaugarriak erakusten.

Hala ere, emakumeek "ildoak gurutzatzen" dutenean eta "ezaugarri baronilak" izenekoak erakusten dituztenean, askotan zalantzan jartzen dira haien genero-identitatea, sexu-orientazioa, balioak eta rol sozialak (Griffin, 1998). Estigma negatiboak maiz emakume kirolariekin lotzen dira, eta emakumeak kirolean duen parte-hartzea kontrolatzeko eta mugatzeko mekanismo gisa erabiltzen dira.

Kirola eta jarduera atletikoak gizonetara mugatu izan dira tradizionalki, eta maskulinitasunarekin eta "nagusitasun maskulinoarekin" lotu izan dira. Woolum (1998) eta Sherrow (1996) lanek patroia marrazten dute eta agerian uzten dute kirolak, denborarekin, emakumeentzat ere garatu duela. Adierazi dutenez, duela mende batzuetatik hona, kirola, lehiaketa, indarra eta taldeko kirol-espirtua ezaugarri egokitzat jo dira "gizonezkoen nagusitasunean". Ondorioz, neska eta emakume askok kirolean parte hartzea saihestu dute. Baina aldaketa iraultzaileekin, emakumeen ohiko genero-estereotipoak eraldatzen hasi ziren.

Gizartea "entrenatua" izan da kirola "genero" terminoetan pentsatzeko. Gizonak motibatuta daude taldeko kirol nekagarri, oldarkor eta lehiakorretan parte hartzeko; emakumeak, berriz, jarduera estetikoagoetara bideratzen dira oro har, hala nola gimnasia, patinaje artistikoa eta igeriketa sinkronizatua (Schmalz eta Kersetter, 2006). Kirolak gizon eta emakume gisa banatzeak bultzatu egiten ditu emakumeak ezarritako muga fisikoak onartzera (Birell, 1998). Beraz, emakumeak ez dira gai genero-estereotipo tradizionalak hausteko.

Argi dago desberdintasun sexualak eta ezaugarri biologikoak daudela gizonen eta emakumeen artean. Kultura gehienek zerrenda eta funtzio desberdinak ezarri dituzte sexu bakoitzerako, eta "naturalizatu" egin dira. Baina estereotipoen buruzko kontua ez da soilik sexuak nola diren desberdinak, baizik eta jendeak nola uste duen desberdinak direla. Generoa maskulinoa eta femeninoa denaren arteko dikotomian oinarritutako eraikuntza soziala da, ezaugarri bereizgarriak dituzten talde desberdinekin lotuta (Eckes, 1994). Gaur egun, sexuaren, generoaren eta sexualitatearen arteko harreman tradizionala joera berriekin hausten da.

Komunikabideak gizarte-bizitza modernoaren funtsezko ezaugarria dira, eta informazio kultural garrantzitsua gorde, transmititu eta sortzeko bitartekoa. Horrela, komunikabideetako

irudikapenek aukera ematen dute jarrera estereotipatuak indartzeko genero-irudi estereotipatuen bidez. Izan ere, komunikabideen azterlanen printzipioetako bat da gizarteko kideek komunikabideen ordezkariak baldintzatzen dituela beren buruak neurri handi batean (Dier, 1993).

### 3.1.3.2. Kirolean

Eukeni Olabarrieta (1993) -ren iritziz, sexuari eta kirolari buruzko estereotipo argia, gizonentzako kiroliek egokienak agresibitate, lehiakortasun eta kontaktu fisiko edo talka handiagoa eskatzen dutenak direla; neskenak aldiz, trebetasuna, malgutasuna eta harmonia garatzen dutenak direlarik. Honek, betidanik emakumeari esleitu zaion zereginarekin zerikusia dakar, hau da, haren funtzio nagusia etxea eta etxekoa zaintzea dela.

Zenbait ideia, hala nola kirol asko egiteak emakumeei feminitatea kentzen diela edo dantza egiten duten gizonak ez direla hain maskulinoak, gehiengoak baztertu egiten ditu (Alvariñas, Fernández-Villarino y López-Villar, 2009). Zaravigka y Pantazis (2012) -ek diotenez, badago ideia batzuk baztertzeko joera, kirolean trebea dena “marimutil” bat dela esatea, adibidez. Joera horiek bilakaera argia erakusten dute aurreko urteetan egindako lanen aldean, iritzi gehienak kirolak emakumeak maskulinizatzen zituela zirenean (Instituto de la Mujer, 2006); gainera, aurreiritzi sexuarekin eta aintzinako mito faltsuei egin behar diete aurre (Macías, 1999).

Hezkuntza arloan, gorputz hezkuntzari dagokionez, emakumeek zailtasunak izaten dituzte. Kasu batzuetan, neskek nota txarragoak lortu eta espero dituzte Gorputz Hezkuntzan, mutilek nota altuagoak lortzen dituzten bitartean (Lentillon, Cogérino y Kaestner, 2006). Era berean, neskei gehiago kostatzen zaie jolasetan parte hartzea mutilak egonez gero (Petračovschi, Bosioc, Voicu y Tabără-Amanar, 2011) edo ez dute nahi parte hartu haien portaera desegokiagatik, iruzkin sexistak barne direlako (Koca, 2009). Gainera, gutxietsiak dira teknika menderatzen ez dutenean (Duarte y Mourão, 2007).

Sheila Scratonen hitzetan: “ Gorputz Hezkuntzako programazio berri bat beharrezkoa da, baieztapena, konfidantza, osasuna, egoera fisiko egokia etab.-era zuzendua”. (Fasting, 1992).

Kasu gehienetan Gorputz Hezkuntzako saioretan mutila dago erdigunean, hau da, garrantzitsuena balitz bezala, guztia hari zuzenduta egonik. Irakasleek neskatilak orientatzeko joera dute oharkabean, malgutasuna, koordinazioa etab. bezalako jarduerak

bultzatuz, emakumeen estereotipoei erantzunez. Ezagutzak, jarrerak, baloreak eta irakasleen portaerak, zeresan handia dute Gorputz Hezkuntzako irakaskuntza mistoan, arrakasta edo porrota izateko (Alvarez, 1992).

Vázquez (1992) -ek aurrera eramandako ikerketetako datuek diotenez, mito asko desagertu dira baina beste askok indarrean jarraitzen dute. Bai gizonek, baita emakumeek ere, uste dute kirola ona dela osasunerako, neskek eta emakumeek egiten dutena baino kirol gehiago egitea komenigarria litzatekeela. Bestalde, onartua dago emakumeek kirol zuzendaritza eta kudeaketa egitea. Hala ere, estereotipoek funtzionatzen jarraitzen dute emakumeentzat egokienak zein kirol diren esanez.

Nahiz eta estereotipo hauek aldatzen joan, kontuan hartu behar da gauza bat jendeak pentsatzen duena (jarrerak) dela eta beste bat oso desberdina benetako jarduerak (jokabideak), eta horien artean desberdintasuna nabaria da. Hau da, ondo ikusia dago emakumeek kirola egitea, baina estatistikek diotenez oso emakume gutxi praktikatzen dute kirola (Vázquez, 1992).

Unibertsitate mailan, emakumeak oso gutxi parte hartzen du kirolean. Gehienek uste dute unibertsitatean ikastean ezin diotela denbora eskaini kirolari. Oro har, ez da ezagutzen unibertsitateko kirol-jardueren eskaintza. Ez da behar adina informaziorik ematen instalazioen eta kirol jardueren inguruan, horregatik, gutxiegi erabiltzen dira emakumeen aldetik (Peláez, 1992).

Subirats (1991) -en esanetan, hezkuntza sisteman diskriminazioa egoten jarraitzen du, baina diskriminazio horrek ez duela eraginik eskola-arrakastaren mailan, generoaren prestakuntza-mailan baizik, emakumeen nortasuna gutxietsiz, neskek segurtasuna galduz. Hori dela eta, gerora begira, egoera-lehiakorretan, lan munduan eta kirol munduan segurtasun eza eta gutsiespen pertsonala izateko joera dute, uzteko puntura iritsi arte.

### **3.1.3.3. Egunerokotasunean**

Lanaren banaketa sexualak emakume batek egin behar zituen jarduerak argi eta garbi bereiztea egiten zuen. Emakumeak etxekoan zaintzan eta lurren zaintzan aritzen ziren eta gizonezkoak, berriz, merkataritzako trukean, politikan eta lurraldearen defentsan. Momentu bat iritsi zen gizonak eta emakumeak hainbat jardueretan espezializatzen direnak, eta bakoitzaren berezko eta berariazkotzat hartzen zirenak. Honi gehitu behar zaio jarduera bakoitzak nortasun-ezaugarri batzuk garatzen dituela, jarrera eta portaerak. Emakumea besteen beharrak asetzen bizi da (guraso, bikote edo seme-alabenak), horrek bere buruaren

arabera bizitzea eragozten dio. Hori dela eta, emakumeak bere gorputz esperientzia mugatua izan da, txikitatik mugimenduaren gogogabetasuna sortuz (García Ferrando, 1990).

Bestalde, emakumeei zuzenduak egon diren espazioak pribatuak izan dira, hala nola, etxea, dendak, merkatuak etab., gizonezkoei eskeinitakoak aisialdi eta ekoizpenerako espazio publikoak direlarik. Kirola askotan aire librean egiten den jarduera publikoa izanik, emakumeentzat oztopoa izan da. Agian, horrek azaltzen du zergatik emakumeek nahigo dituzten gimnasio eta leku itxiak, gizonezkoek zelai eta kantxak gogo dituzten bitartean (Buñuel, 1992).

#### 4. HELBURUAK

Ikerketa lan honen helburu nagusiak hurrengo bi hauek dira:

- Lehen Hezkuntzako haurrek genero rolen eta estereotipoen inguruan duten ikuspegiaren azterketa egitea.
- Galdetegia islatu diren beharren arabera esku- hartze bat diseinatzea.



## 5. METODOLOGIA

### 5.1. Parte hartzaileak

Gradu Amaierako Lan hau, Lehen hezkuntzako 2. zikloko umeekin burutu da, 6. mailakoekin hain zuzen ere, J.A. Mogel ikastolan. Ikastola Eibarko herrian kokatua dagoen D erekuko ikastola publikoa da. Lehen Hezkuntza, Iturburu izeneko eraikinean dago, Mandiola Ballen, hain zuzen ere, eta 3 lerroko ikastola izanik mugimendu handiko ikastola da. Lehenago esan bezala, 6. mailako ikasleak izango dira aztergai, beraz, 71 ikaslek osatzen duten lagina izango da; haietako 39 neskek eta 32 mutilak izanik.

Testuingurua aztertuz, bertako maila sozioekonomikoa ertaina dela esango genuke eta, gehienbat, izaera euskalduneko haurrak dira, ikasle etorkinen konpurua baxua delarik.

### 5.2. Tresna

Lan hau aurrera eramateko, 71 ikasleko lagina erabiliz, haurrek gorputz hezkuntzarekiko dituzten genero-rolak eta estereotipoak zientzuz diren aztertzeko galdetegi bat egin da. Galdetegiaren izenburua hurrengoa da: Cuestionario de Actitudes Sexistas en Educación Primaria elaborado a partir de la Escala de Detección de Sexismo en Adolescentes (Recio, Cuadrado y Ramos, 2007).

Helburua Lehen Hezkuntzan izaten diren jarrera sexisten azterketa egitea da. Galdetegia 26 baieztapenez osatua dago, horietako 6 kirolarekin lotuak, 16 rolen ingurukoak eta 4 ezaugarriei dagozkienak. Baieztapen bakoitzaren bukaeran egia edo gezurra erantzuteko aukera dago eta ikerketa honetan hirugarren aukera bat eman zaie, Kasuaren Arabera (KA) deiturikoa.

### 5.3. Prozedura

COVID-19aren ondorioz ez da erraza izan egin beharreko ibilbidea egitea, gauza asko zaildu baititu errealitate berri onek. Hasiera batean helburua zein zen aztertuz galdetegia sortu zeneta zer ikastetxetan egin pentsatzen hasi nintzen. Nire lehenengo aukera Debako Luzaro ikastetxea izan zen, bertan ikasi baitut txikitatik eta praktikak bertan burutu nituen. Beraz, email bitartez Luzaro ikastetxeko zuzendareriarekin harremanetan jarri nintzen baina segituan ezezkoa jaso nuen. Galdetegia pasatzea ez zitzaion ongi iruditzen koronabirusaren pandemiak ekar ditzakeen arazoengatik.

Orduan, beste nonbaitera jo behar nuen eta nire inkesta Eibarren egitea bururatu zitzaidan. Bertan, Iturburun ikastetxea, nire lagun baten ama dago zuzendari gisa eta uste nuen errazagoa izango zela haren bitartez galdetegia pasa ahal izatea. Beraz, zuzendaria pertsonalki ezagutzen dudanez eta konfidantzazko pertsona denez, mugikorrez deitzea erabaki nuen nire asmo eta helburuak zeintzuk ziren azalduz. Hark arazorik ez zegoela esan


zidan, nire galdetegia pasatzeko aukera izango nuela, baina COVID19-aren ondorioz ezarritako neurriak zirela eta, berak pasako zituela nire galdetegiak behar nuen ikasle orori. Nire aldetik ez zegoen arazorik, oso eskertua nengoen eta prozesua martxan jarri zen. Galdetegia osatuak nituen eta emailez bidali nizkion zuzendariari hark inprimitu eta hurrei helarazteko.

Hasiera batean nire helburua lagina handiagoa izatea zen, 1.mailako haurrak ere parte hartzaile eginik. Horregatik, galdetegia 1. eta 6. mailakoei pasa nien baina aurrerago ohartarazi nintzen 1. mailakoak txikiegiak zirela galdetegia ongi ulertzeko, beraz, haien erantzunak albo batera utzi nituen. Astebete igaro zen zuzendariaren deia jaso nuenetik, galdetegiaren emaitzak zituela esanez. Momentu hartan Eibarrera joan nintzen inkesta guztiak jasotzera. Emaitza guztiak bildu ondoren, antolatu eta aztertu nituen, ondorio batzuk atera eta egoera hori hobetu nahi izan nuen, beharrak non dauden ikusiz.

## 6. EMAITZAK

Jarraian ikasleei egindako inkestaren emaitzak item-ka agertzen dira, galdera bakoitzean ikasleek eman dituzten araberako portzentaia agertzen da. Lehenengo galdetegiaren inguruko emaitzak agertzen dira eta ondoren ikaslegoak praktikatzen duen jarduera fisiko eta kirolaren inguruko datuak.

### GALDETEGIAREN EMAITZAK




1. irudia: “Neska batek mutil batek egiten dituen gauza berberak egiteko aukera izan beharko luke (futbolean jolastu, bideojokoetan jolastu, lagunekin geratu etab.” item-aren distribuzioa.

Adostasun oso batera iritsi gabe, gehiengo handi batek, %98,6-ak, baieztapen honekin ados dagoela dio, eta minimo bat, %1,4-a, desados dago.



2. irudia: “Neskak traketsagoak dira kiroletan” item-aren distribuzioa.

Gutxiengo batek, %5,6-ak egia dela dio, gehiengoak, %73,2-ak, gezurra dela dioen bitartean. Bestalde, %21,1-ak kasuaren arabera aztertzeko baieztapena dela dio.



3. irudia: “Mutilak trebeak dira kiroletan” item-aren distribuzioa.

Egia eta gezurra oso parekaturik daude, egia %26,8-k diotelarik eta gezurra, berriz, %25,4-ak berriz. Hala ere, ia ikaslegoaren erdiak, %47,9-ak, kasuaren arabeko esaldia dela dio.



4. irudia: “Neskek gizonen lan eskaintza berbera eduki beharko lituzkete” item-aren distribuzioa.

Ikasleen %97,2-a ados dago dio baieztapen hau egia dela esaten duenean, %2,8-ak, berriz, gezurra dela dio.



5. irudia: “Mutilak oso dantzari trebeak izan daitezke” item-aren distribuzioa.


Mutilak oso dantzari trebeak diren afirmazioari %95,8-k egia dela erantzun diote, %2,8-k gezurra, eta badaude gutxi batzuk, %1,4-ak kasuaren arabera afirmazioa dela diotenak.



6. irudia: “Neskei jolasetan agintzea gustatzen zaie” item-aren distribuzioa.


6. irudian ikusi daitekeen bezala, ikaslegoaren gutxiengo bat, %9,9-a hain zuzen ere, ados dago. Aldiz, %39,4-ak esaten du gezurra dela. Bestalde, ikasleen erdiak, %50,7-ak, kasuaren arabera dela.

## KIROL PRAKTIKAREN INGURUKO EMAITZAK



1. irudia: “Praktikatzen duten kirola” item-aren emaitzak.

la nesken erdiak, %47,4-ak dantza egiten du, mutilek berriz, %60-ak futbola praktikatzen dute.



2. irudia: “Praktikatu nahi duten kirola” item-aren emaitzak.

Nesken %26,9-ri futbolean jolastea gustatuko litzaieke eta beste hainbesti igeriketa praktikatzea. Mutiletan berriz, gehien nabarmentzen den kirola eskubaloia litzateke, % 27,8-arekin.

## 7. ONDORIOAK ETA HAUSNARKETA

Ikerketa honek, gizartean aldaketa nabaria eman dela adierazten du, hala ere, oraindik ere aldatzeko lana dugula ikusi da. Emaitzek genero eta estereotipo rola eguneroko bizitzan eta kirolean gainditu egin direla agerian utzi dute eta jarrera sexistarik ez zen ageri. Ikasleek kirolean neska eta mutilen egokitzen zaizkien ezaugarriak ez dutela beti genero zehatz bati lotura egon behar adierazten dute. Gehienek galderak zentzuz erantzun zituzten eta teoriaran ideiak oso argi zituztela zirudien.

Galdetegiaren beste zatian, jarduera fisiko eta kirol ohituren galderetan ordea, ez zetorren bat lehenago erantzundakoarekin. Praktikatzeko zuten kirolaren erantzunak eta praktikatzeko gustatuko litzaiekeen erantzunen artean, ezberdintasunak aurkitu genituen. Mutilen kasuan, lehenengo galderan ehuneko oso altu batek kirola praktikatzeko zuela adierazi zuen eta gainontzekoek bestelako hainbat kirol, eskubaloia etab. Nesken kasuan aldiz, ia gehienak dantzari edo balletari aritzen ziren. Bigarren galderen emaitzak, aldiz, pentsarazteko egin zidaten, errealitatean gertatzen denaz ohartzea. Izan ere, mutilen erantzunetan saskibaloia edota eskubaloia ziren erantzun nagusiak. Nesken erantzunak, ordea, bestelakoak izan ziren. Neska askok futbola edota saskibaloia aukeratu zuten praktikatzeko gustatuko litzaiekeen kirola bezala.

Argi ikusi daiteke neska gehienei praktikatzeko gustatuko litzaiekeen kirola, "mutilen kirola" bezala ezagutzen diren kirolak direla. Mutilen kasuan berriz, jarraitzen dute "mutilen kirola" bezala etiketatutako dauden kirolak praktikatu nahian.

Nahiz eta eboluzio istorikoa izugarria izan den, oraindik aldaketa ugari izan behar dira gure gizartean berdintasuna lortu eta jarrera sexistekin amaitzeko. Izan ere, gaur egun alderdi batzuk saltzen dutenak ez du laguntzen, komunikabideek esaterako. Komunikabideak informazio iturri edota denbora pasa ohikoa izanik, zeharka bada ere jarrera sexista ugari transmititzen dute gure egunerokoan. Telebistan ikusten ditugun emakume eta gizonak askotan ez dira errealak, estereotipo hutsak dira. Baina, tamalez, sarritan ohartaz ohartu gabe gure barnea informazioa desagokia gordetzen dugu. Telesail, publizitate edota berrietan genero rol errepikakorrak islatzen dira, gure ikasleen burbuinak haien baitan gordetzen dituztenak. Hori horrela izanik, egungo gazteek telebistan agertzen diren pertsonak bezalakoak izan nahi dute, haien berberak, ezaugarri eta nortasun berarekin, bakoitzak bere nortasuna aukeratu eta eraiki ordez.

Horregatik, esku hartze proposamen bat egin dut ikasleek askatasun osoz aukeratu dezaketela erakusteko. Bertan, jarduera desberdinak proposatu ditut, non askotan aukeratu beharra izango dute, taldean lan eginez eta haien gorputza baliabide gisa erabiliz.

## 8. ESKU-HARTZEA

Irakasgaia: Gorputz hezkuntza
Gaia: Gorputz adierazpena, dantza eta askatasuna
Maila: Lehen Hezkuntzako 2. zikloa (6.maila)
Saioak: 6
<p><u>Proposamenaren justifikazioa:</u></p> <p>Nahiz eta azken urte hauetan genero rolen eta estereotipoen inguruan lanketa handia egin den; oraindik ere, etiketak oso nabariak dira gure gizartean. Ikasleen artean jarrera sexistak murriztagoak direla dirudien arren, Gorputz Hezkuntzako ikasleen artean oso ohikoa da nesken eta mutilen kirolak edota jarduerak ezartzen jarraitzea.</p> <p>Horregatik, proposamen honen bitartez, estereotipo horiek gainditzea lortu nahi da, jarrera sexisten inguruko lanketa eginez, gazteen erabakitzeko askatasuna bermatuz.</p> <p><u>Etapako ezaugarriak:</u></p> <p>Garapena, aldaketa ordenatuen segida kuantitatibo zein kualitatiboa da eta gertatzen diren aldaketak elkarren menpe daude. Garapenean, hainbat ingurumen eta herentzia faktorek eragiten dute. Ez hori bakarrik, garapena heldutasunaren eta ikaskuntzaren arabera emango da. Norbanako bakoitzak bere ezaugarri propio eta berezko garapen erritmoak ditu eta zenbat eta garapen maila handiagoa, orduan eta gaitasunen dibertsifikazioa handiagoa du (Padilla, 2009).</p> <p>Eta honetako <b>ezaugarri kognitiboak</b> kontuan hartuz gero, esan daiteke maila kognitiboan lorpen nabarmenak bereizten direla, eta lorpen horiek eragiketa zehatzen aldiak kokatutako pentsamendu logikoarekin hasten dira. Gainera, ikasleek gero eta autonomia handiagoa hartzen doaz eta beraien hizkuntza asko zabaltzen da, ez ahozko hizkuntzan bakarrik, baita beste hizkuntza batzuetan ere. Esate baterako, matematikoa, artistikoa, gorputz adierazpena... Hauen bidez, adierazteko eta komunikatzeko aukera berriak garatzen joaten dira (Padilla, 2009).</p> <p>Garai honetan, haurrek gero eta abstrakzio-gaitasun handiagoa lortzen dute. Hartara, antzekotasunak eta desberdintasunak nabarmentzen dituzte; eta errealitatea antolatuz, egituratu eta antolatzen dute. Horretarako, gero eta jakin-min intelektual handiagoa sortzen da haiengan eta fenomenoak behatzeko eta modurik objektiboenean azaltzeko interesa</p>



pizten zaie (Padilla, 2009).

**Ezaugarri sozialei** erreparatuz gero, aipatutako hizkuntza eta pentsamendu gaitasun berriek komunikazioa eta gizarte interakzioa errazten dute. Berdinen arteko eta helduekin sortutako harremana, garapen iturri garrantzitsua da. Honekin batera, beste baten lekuan jartzeko gaitasunak ikuspegi egozentrikoa gainditzeko laguntzen dio. Arlo honetan ikaslea beste hainbat alor ere garatzen ditu; hala nola, bere gaitasun eta mugez jabetzen da; arauak onartzen ditu; lankidetzarako jokabideak bereganatzen joaten da; eta parte hartzeko, tolerantziarako eta elkarrekiko errespeturako jarrerak eta portaerak garatzen doa (Padilla, 2009).

**Ezaugarri fisikoei** dagokionez, aurrerapen handiak egiten dira, bai gorputzaren ezagutzari eta kontrolari dagokionez, bai trebetasunei dagokienez (mugimendu pertzepzio gaitasunak, oinarrizkoak, orokorrak eta espezifikokoak) eta oinarrizko gaitasun fisikoei dagokienez (indarra, malgutasuna, erresistentzia eta abiadura) (Padilla, 2009).

Aurreko paragrafoan aipatutako aurrerapen hauen artean honako hauek bereiz daitezke; ikasleak bere gorputz-eskema, gorputz-segmentuak eta ekintza eta mugimendu aukerak ezagutzen ditu; norberak bere gorputz irudia eratzen joaten da ni-aren, objektuen eta besteen elkarrekintzaren bidez; jarrera eta arnasketa kontrolatzeko aukerak garatzen ditu; gorputz-segmentuen independentzia lortzen du; lateralitatea finkatzea lortzen du; haren koordinazioa sendotuz doa; espazioa antolatzen du eta horri esker, orientazioaren, egoeraren eta tamainaren nozioak menderatzen ditu; denbora antolatzen du (norberaren jarduerarekin erlazionatzen diren iraupenaren, segidaren eta aldibereketasunaren nozioak integratuz); eta azkenik, begi-eskuen koordinazioa eta zehaztapena lortzen ditu (Padilla, 2009).

#### Arazo-egoera:

**A. Testuingurua:** Eibarko Iturburu ikastetxean jarrera sexisten eta genero bereizketaren inguruko galdetegi bat pasa ondoren, ikusi da teoriarik ematen diren baieztapenak praktikan ez direla betetzen.

**B. Arazoa:** Nahiz eta gaur egungo gizarteko eremu desberdinetan lanketa handia egiten ari den sexismoa eta genero bereizketaren inguruan; oraindik estereotipoak eta etiketak oso ugariak dira gazteen artean. Gainera, erabakitze askatasunean gabezi handia nabari da. Praktikatu nahi dituzten kirolak askatasunez erabakitze aukera duzue? Zein kirol praktikatzeko gustatuko litzaizueke??

#### C. Helburua:

Gorputz Hezkuntzan eta kiroletan ezarrita dauden etiketen lanketa bat egitea gorputz adierazpenaren bidez.

Ikasleek dituzten pentsamendu eta ideiak helaraztea gorputz mugimenduarekin.

Estereotipo eta genero rolen inguruan hausnartzea.

Zeregina: Talde txikietan lan eginez, haiek aukeratutako jantzi, mugimendu eta abestiak erabiliz emanaldi bat sortzea.

Oinarrizko gaitasunak:

Hurrengo atal egun indarrean dagoen Hezkuntza Curriculum Dekretuan (Heziberri 2020) oinarrirituta osatu da.

A. Zeharkakoak:

Elkarbizitzarako konpetentzia

1. *osagaia:* norberaren eta besteren nahiak asebate daitezen uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.

Norbera izaten ikasteko konpetentzia

3. *osagaia:* portaera soziala eta morala autorregulatzea

B. Diziplinari dagozkionak:

Konpetentzia motorra

3.*osagaia:* Gorputza naturaltasunez edo intentziaz erabiltzea komunikatzeko eta sormena, afektua eta ulermena adierazteko.

Helburu didaktikoak:

1. Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-aukerak erabiltzea, norberaren eta besteen sentimenduak eta nahiak bizitzeko eta onartzeko, eta mugimendu propio baten bidez pertsonalizatzeko.

2. Jarduera fisikoetan parte hartzea, besteekin batera talde-harremanak sustatzen dituzten proiektuak garatzeko.

Ebaluazio Irizpideak:

- Talde-konposizioak sortzea ikaskideekin lan eginez, gorputzaren adierazpen-bitartekoak erabiliz, eta estimulu musikalak, plastikoak edo hitzezkoak abiapuntutzat hartuta.

- Norberaren eta besteen sentimendu eta nahiak adieraztea eta onartzea, adierazpen eta aukera askatasuna bermatzeko.

### Edukiak:

Adierazteko moduen arteko ezberdintasunak.

Gorputzaren bidezko emozioen adierazpena.

Norberaren eta besteekiko errespetua.

Jarduerak burutzeko inizatiba.

Parte-hartze aktiboa.

Gorputza eta mugimendua.

Musika eta erritmo ezberdinak.

### Metodologia:

Unitate didaktiko honetarako, **irakaskuntza kooperatiboa** aurrera eramango da, izan ere, irakaskuntza kooperatiboan, ikasleak izango dira euren eta haien kideen ikaskuntza prozesuaren arduradunak, beraz, haien artean ardura banatuko da guztion artean proposatutako erronkak gainditu ahal izateko. Metodologia honen bidez, ikasleek euren artean ikasteaz gain, irakaslearen eta baita ere ingurunearen bidez ikasten dute (Fernández eta Méndez, 2016).

Adierazi bezala, metodologia honetan ikasle talde txiki bat elkarlanean aritzen da helburu zehatz batzuk betetzeko, beraz, kide guztien parte-hartzea ezinbestekoa izango da erronka zehatz hori lortzeko.

Ikaskuntza kooperatiboaren bitartez, ikaskuntza aktibo eta esanguratsuak sustatzen dira, izan ere, ikasleek ikaskuntza sakonago bat lantzeko aukera dute. Horrez gain, oso baliagarria da taldeka lan egiten ikasteko, izan ere, laguntasunik gabe ez da helbururik lortuko (Fernández eta Méndez, 2016).

Gure sekuentzia didaktikoa aurrera eramateko, nagusiki jolasak erabiliko dira. Izan ere, Extremera eta Monterok (2016) dioten moduan, jolas motorra da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren elementu hezigarri garrantzitsuenetarikoa. Era berean, edozein ikaskuntza etapan erabiltzea baliagarria izan daiteke.

Aurrekoaren harira, ikasgelaren errealitatea kontuan hartuz, bereziki inportantea iruditzen zaigu saioak jolas-jardueretan oinarritzea, haurrentzat dibertigarriak eta erakargarriak izanik.

Jolasa ikaskuntza tresna gisa, alde ludiko hura kooperazioaren balorearekin uztartzea ezinbestekoa iruditu zaigu. Horregatik, arestian adierazi bezala, gure sekuentzia didaktikoan ikaskuntza kooperatiboa sustatzen ahalegindu gara.

Horretarako, Fernández eta Méndez (2016) eredu pedagogikoan oinarritu gara, non, ikasleek gainontzekoen bitartez, gainontzekoekin eta gainontzekoei esker ikasten duten.

Horren harira, gure proposamen didaktikoan garapen fisikoa, garapen kognitiboa, garapen soziala eta garapen afektiboa lantzen ahaleginduko gara, betiere kooperazioan oinarritutako metodologiari eutsiz (Fernández eta Méndez, 2016).

#### Jardueren sekuentzia:

SAIOA: Norbere sentimenduak adierazten.

SAIOA: Besteen sentimenduak adierazten.

SAIOA: Genero-rolak ezagutuz.

SAIOA: Kirolean genero-rolak ezagutuz.

SAIOA: Antzezpena prestatuz.

SAIOA: Antzezpenaren eguna.

#### Ebaluazioa:

Hurrengo atalean proposamen honen feedback-a lortzeko beharrezkoak diren ebaluazio adierazleak eta tresnak zehaztuko dira. Ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak hobetzeko ebaluaketa bat egitea proposatzen da, hau da, ebaluaketa formatibo bat (López et al., 2006).

Ebaluaketa honen helburua ikasleei hobetzen laguntzea eta irakasleei lan tresnak eskaintzea da, ez ikaslea kalifikatzea soilik. Bestalde, berdinen arteko ebaluaketa izatea komeni da, ebaluaketa partekatu bat izanik ikasle eta irakasleen arteko elkarriketa sustatzen duena (Lopez et al., 2006).

#### A. Adierazleak:

Ebaluaketa aurrera eramateko erabiliko diren lorpen adierazleak irakasleak jarraituko duen errubrikan ezarriko dira eta Heziberri 2020 Curriculum Dekretuan oinarrituta egongo dira.

#### Lorpen adierazleak:

Talde-konposizioak sortzea ikaskideekin lan eginez, gorputzaren adierazpen-bitartekoak erabiliz, eta estimulu musikalak, plastikoak edo hitzezkoak abiapuntutzat hartuta.

Taldean sortzen diren gaztakak eta liskarrak autoerregulatzen ko gai da

Norberaren eta besteen sentimendu eta nahiak adieraztea eta onartzea, adierazpen eta aukera askatasuna bermatzeko

Taldeko kide bakoitzaren gaitasunak eta adierazpenak onartu eta errespetatzen ditu.

Ez hitzezko komunikazioaren bidez, ikasleak bere eta bere ikaskideen gorputz eskema ezagutu eta honekin esperimentatzeko gai da.

Musikarekin batera gorputza mugitzeko eta sentimenduak eta emozioak adierazteko gai da.

Ikaskideekin lan eginez eta ez hitzezko baliabideak erabiliz, produktu edota konposizio bat sortzeko gai da.

Gizartean eta kirol munduan ematen diren genero bereizketa eta diskriminazio egoerak identifikatzen ditu eta horien inguruan hausnartzen du.

Taldeko kide bakoitzaren gaitasunak eta adierazpenak onartu eta errespetatzen ditu.

#### B. Tresnak:

Kasu honetan ebaluazio tradizionala alde batera utziko da eta ordezkotako ebaluazioa erabiliko da, modu tradizionaletik ezberdina den beste edozein ebaluazio barneratzen duen ebaluazioa. Hemen ez du irakasleak ikaslea soilik ebaluatuko, koebaluazioa eta autoebaluazioa ere erabiliko dira. Honetarako, ez dira ebaluaketa tradizionalen oso ohikoak diren test fisikoak erabiliko, ikasleen autoebaluaketa fitxak, koebaluaketa egiteko fitxak, irakaslea ebaluatzeko fitxak eta irakaslearen behaketa erabiliko dira ebaluaketa instrumentu bezala. Modu honetan, ikasleei kalifikazio bat soilik jartzeaz gain, euren ikaskuntza hobetzeko aukera emango zaie, arazoak, aurrerapenak eta bakoitzaren puntu ahul eta indartsuak hautemateko aukera ematen baitu.

Beraz, irakasleak ikasleei egiten dien ebaluaketa egiterako orduan ez da soilik arlo motorrakontuan hartuko, jarrera ere kontuan hartuko da. Esan bezala, ebaluaketa instrumentuairakaslearen behaketa izango da ebaluaketa honen oinarria, eta hau unitate osoan zehar egiten den ebaluaketa izango da, ikasleen garapena nolakoa izan den ikusteko balioko duena.

Autoebaluazioa unitatearen erdian eta amaieran izango da eta bertan ikasleek euren trebeziak ebaluatzeaz gain, euren jarrera ebaluatuko dute, horrela, ikusi ditzaketan arazoak identifikatu ditzakete. Taldeko koebaluazioa autoebaluazioaren oso antzekoa izango da, baina, kasu honetan, ikasleek taldea ebaluatuko dute orokorrean.

## 9. MUGAK ETA ETORKIZUNERAKO IRADOKIZUNAK

Hasteko esan beharra dago Covid-19-a dela eta ez dela batere erraza izan lan hau aurrera eramatea, eta zenbait pausu moldatu egin behar izan direla. Egunez egun aldatzen doazen neurriak direla plangintza aldatzen joan da lana bere osotasunean egitea lortu arte. Hala ere, esku-hartzea aurrera eramatea ezinezkoa izan da, baina aurrerago egiteko proposamen bat diseinatu da.

Lan honek duen beste muga bat, esku-hartze proposamen hau 6 saioz osatutako diseinua dela da. Epe laburreko prozesua dela esango genuke eta horregatik, garrantzitsua ikusten dut egindako lan honi jarraipen bat ematea, benetan ikasleek adierazpen askatasuna lortu eta genero eta estereotipoen inguruan hausnarketa sakona egin dezaten.

Etorkizunean lan honekin jarraitzeko, interesgarria eta baliozkoa iruditzen zait, kirolen aukeraketan eragina izan duten arrazoiak sakonago aztertzea, beraien aukeraketaren zergatia eta pentsamendua ezagutze aldera.

Amaitzeko, esan beharra dago Gorputz Hezkuntzan ez dela oso ohikoa gorputz adierazpena bezalako baliabideekin lan egitea, ezta genero rol eta estereotipoen inguruan lan egitea. Normalean, beste ikasgai batzuetan egiten den lanketa bat da. Beraz, jarduera desberdin eta alternatiboak erabiliz eta mugimendua oinarri izanik Gorputz Hezkuntza ere lanketa eta hausnarketa desberdinak egin daitezkeela ikusi behar da, ikaskuntza berriak sortuz.

## 10. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan azartzen duena.
- Alvariñas-Villaverde, M., & Pazos-González, M. (2018). Estereotipos de género en Educación Física, una revisión centrada en el alumnado. *Revista electrónica de investigación educativa*, 20(4), 154-163.
- Extremera, A. B. eta Montero, P. J. R. (2016). El juego motor como actividad física organizada en la enseñanza y la recreación. *EmásF: revista digital de educación física*, (38), 73-86.
- Fernández Rio, J. eta Méndez Giménez, A. (2016). El aprendizaje cooperativo: Modelo pedagógico para Educación Física. *Retos. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (29), 201-206.
- Gavaldón, B. G. (1999). Los estereotipos como factor de socialización en el género. *Comunicar*, (12).
- García-Ruiz, R., Aguaded, I., & Vázquez, A. I. R. (2014). Propuesta de alfabetización mediática ante los estereotipos de género en los medios de comunicación: Resultados y valoración de "Rostros de Mujer". *Prisma Social: revista de investigación social*, (13), 576-609.
- López, V. M., Monjas, R., Gómez, J., López, E. M., Martín, J. F., González, J., ... eta Marugán, L. (2006). La evaluación en educación física. Revisión de modelos tradicionales y planteamiento de una alternativa. La evaluación formativa y compartida. *RETOS. Nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, 10, 31-41.
- Macías Moreno, M. V. (2005). *Estereotipos y deporte femenino: La influencia del estereotipo en la práctica deportiva de niñas y adolescentes* (Tesis doctoral)
- Osborne, R., & Petit, C. M. (2008). La evolución del concepto de género: selección de textos de S de Beauvoir, K Millet, G Rubin y J Butler (selección y presentación: R Osborne y C Molina Petit). *Empiria: Revista de metodología de ciencias sociales*, (15), 147-182.
- Padilla, R. (2009). Desarrollo psicoevolutivo en niños de 6-12 años. *Revista digital innovación y experiencias educativa*,(14).
- Quiles, M. P., & Corredor, D. M. (2019). Trabajo y roles de género durante la Prehistoria. Un estudio sobre su percepción en el alumnado de Historia. *Panta Rei. Revista digital de ciencia y didáctica de la Historia*, 13, 37-53.
- Sagarzazu Olaizola, I., & Lallana Del Rio, I. (2012). La influencia de los estereotipos de género tradicionales en la participación deportiva de las mujeres y su reproducción en

los medios de comunicación. In Libro de Actas del I Congreso Internacional de Comunicación y Género.(pp. 2032-2047). Sevilla: Facultad de Comunicación. Universidad de Sevilla.

- Velandia-Morales, A., & Rincón, J. C. (2014). Estereotipos y roles de género utilizados en la publicidad transmitida a través de la televisión. *Universitas Psychologica*, 13(2), 517-527.



## 11. ERANSKINAK

### I. ERANSKINA: Ikasleek betetako inkesta

#### Estereotipoak eta genero-rolak

Izena: .....

Sexua: Neska  Mutila  Beste bat

Nazionalitatea: .....

Adina: .....

- Kirolak praktikatzen al duzu? Ala bada, zein?

.....

- Beste kirolak praktikatzea gustatuko litzaizuke? Zein?

.....

- Hurrengo esaldiak E (egia), G (gezurra) edo KA (kasuaren arabera) erantzutekoak dira.

- 

	EGIA	GEZURRA	KASUAREN ARABERA
1- Emakumeak gizonak baino ahulagoak dira orokorrean. <i>Ezaugarria.</i>			
2- Emakumeek lan egiten ezbadute langabezi gutxiago egongo da. <i>Rola.</i>			
3- Emakumeen tokia etxea da. <i>Rola.</i>			
4- Neska batek mutil batek egiten dituen gauza berberak egiteko aukera izan beharko luke (futbolean jolastu, bideojokoetan jolastu, lagunekin geratu etab.). <i>Kirola.</i>			
5- Amak dira haurrak hezitzen dakiten bakarrak. <i>Rola.</i>			

6- Neskek errazago barkatzen dute mutilek baino. <i>Ezaugarria.</i>			
7- Aita da familiara dirua ekarri behar duena. <i>Rola.</i>			
8- Aita familiako nagusia da eta amak hark esaten duena errespetatu behar du. <i>Rola.</i>			
9- Aitak etxeko lanak egiten ditu (kristalak garbitu, plantxatu etab.). <i>Rola.</i>			
10- Neskek haien amei etxeko lanetan lagundu behar die. <i>Rola.</i>			
11- Amak dira etxeko lanak egiten dakizkiten bakarrak. <i>Rola.</i>			
12- Etxetik kanpo lan egiten duten amen familiek arreta falta dute. <i>Rola.</i>			
13- Familiako erabaki garrantzitsuak aitak hartu behar ditu. <i>Rola.</i>			
14- Neskek hobeto jasaten dute mina. <i>Ezaugarria.</i>			
15- Neskak traketsagoak dira kiroletan. <i>Kirola.</i>			
16- Mutilak trebeak dira kiroletan. <i>Kirola.</i>			
17- Ongi dago amek haien familiak ekonomikoki mantentzea. <i>Rola.</i>			
18- Neskek gizonen lan eskaintza berbera eduki beharko lituzkete. <i>Rola.</i>			
19- Neskak oso trebeak izan daitezke futboleant jolasten. <i>Kirola.</i>			
20- Amak dira haien umeak zaindu behar dituztenak gaixo daudenean. <i>Rola.</i>			
21- Lanpostuetan nagusi diren emakume gehiago behar dira. <i>Rola.</i>			
22- Hobe da pixoihalak amek aldatzea haurrei. <i>Rola.</i>			
23- Amak etxetik kanpo lan egiten badu etxeko lanak aitarekin banatu beharko lituzke. <i>Rola.</i>			

24- Mutilak oso dantzari trebeak izan daitezke. <i>Kirola.</i>			
25- Gizonak prestatuagoak daude ekonomiarako eta politikarako. <i>Ezaugarria.</i>			
26- Neskei jolasetan agintzea gustatzen zaie. <i>Kirola.</i>			

## II. ERANSKINA: Esku- hartze proposamenaren saioak

1. SAIOA			
Helburua: musikaren bitartez norberaren sentimendu eta emozioen kontzientzia hartzea eta adieraztea.			
JARDUERAK			
BEROKETA- FASEA			
1. JARDUERA   Musikaren erritmoan			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Musika eta bozgorailua.	Talde osoa batera.	15 minutu.
AZALPENA			
Musika ezberdinak jarriko dira bozgorailuan eta ikasleak hauen erritmorra mugituko dira espazio osoan zehar sentimendu eta emozio ezberdinak adieraziz. Tarteka, ikasleak kirol baten izena esango du eta ikasleek kirol hori antzeztu beharko dute.			
ATAL NAGUSIA			
1. JARDUERA   Zein abesti da?			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Ez da materialik behar.	5 pertsonako talde txikietan.	20 minutu.
AZALPENA			
Talde bakoitzak euskarazko gustuko duten abesti bat aukeratuko du eta dantza bat prestatu beharko dute. Dantzatzeko musikaririk ez dutenez izango, letra kontuan izan beharko dute eta horren arabera adierazteko moduan finkatu, prestatutakoa antzeztuz gainontzeko taldeak abestia asmatzen saiatu beharko baitira.			
2. JARDUERA   Dantza			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Musika eta bozgorailua.	5 pertsonako talde txikietan.	10 minutu.
AZALPENA			
Aurreko jarduerarik lotuta, talde bakoitzak dantza errepikatze aukera izango du baina oraingo honetan musika erabiliz.			

LASAITZE – FASEA			
1. JARDUERA   Korapiloa			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Musika eta bozgorailua.	Talde osoa batera.	15 minutu.
AZALPENA			
<p>Ikasle guztiak elkarri eskua emanez ilara bat osatuko dute eta horren izkinetan kokatuta dauden bi pertsonetatik bat taldeko gidaria izango da. Gidaria bere taldekideek eskuen bitartez sortutako zubien artetik pasatu beharko da etengabe musikaren erritmoa jarraituz eta korapilo bat sortzen saiatu. Musika gelditzean ikasleak elkarri eskuak askatu gabe korapiloa askatzea lortu behar dute eta horretarako izkinetako bi ikasleen kokapena kontuan izatea ezinbestekoa izango da.</p>			

2. SAIOA			
Helburua: musikaren bitartez besteen sentimendu eta emozioen kontzientzia hartzea eta adieraztea.			
JARDUERAK			
BEROKETA- FASEA			
1. JARDUERA   Aurrekoari jarraituz			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Ez da materialik behar.	Lau pertsonako taldetan.	15 minutu.
AZALPENA			
<p>Talde bakoitza ilaran jarriko da eta libreki hasiko dira musikaren erritmor mugitzen gimnasiotik zehar. Baina, lehenengoak momentu hortan musikaren bidez sentitzen duena adierazi beharko du eta ilarako gainontzekoak honi kopia. Irakasleak "aldaketa" esaten duen momentuan lehenengoa dagoen pertsona atzera joango da eta hurrengoari kopia beharko diote.</p>			
ATAL NAGUSIA			
1. JARDUERA   Ispilua			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Ez da materialik behar.	Talde osoa.	15 minutu.
AZALPENA			

Ikasleak binaka jarriko dira eta rolak banatuko dituzte; ispilua eta pertsona. Pertsonak nahi dituen egoerak antzeztuko ditu emozioak sartuz eta besteak besteak mugimenduak imitatu beharko ditu ispilua dela kontuan hartuta. Ondoren rolak aldatuko dituzte, ikasle guztiak aukera berdinak izan ditzaten.

*Aldaera:* pertsonak egoera bat antzezten duenean, egoera horri imitatu ordez, ispiluak antzeztuz egoera horri erantzun beharko dio.

## 2. JARDUERA | Txontxongiloa

ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Ez da materialik behar.	Talde osoa.	15 minutu.

### AZALPENA

Ikasleak binaka daudela aprobetxatuz, rolak aldatuko dituzte; hau da, bata txontxongiloa izango da eta bestea aldiz honen arduraduna. Gimnasioko ispiluaren aurrean jarriko dira eta txontxongiloa mugiaraziko du arduradunak irudimenezko hari batzuen bidez, hau honen mugimenduetara moldatzen delarik. Denbora tarte bat pasatu ondoren rolak aldatuko dituzte.

## LASAITZE - FASEA

### 1. JARDUERA | Erlaxazioa

ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Musika ekipoa.	Talde osoa batera.	10 minutu.

### AZALPENA

Bakoitza eroso dagoen moduan gimnasioan zehar etzan edo eseriko da, argiak itzalita daudelarik. Orduan, irakasleak musika lasaia jarriko du eta ikasleak isiltasuna mantenduz eta begiak itxita ditzuztelarik, dinamizatzaileak esaten duena egingo dute. *“Hartu sakon arnasa sudurretik eta lasai bota ahotik...”*

## 3. SAIOA

Helburua: genero rolen ezberdintasunez jabetzea.

### JARDUERAK

#### BEROKETA- FASEA

##### 1. JARDUERA | Oskestra musikatua

ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Musika ekipoa	Taldea bi azpitaldetan	10 minutu.

		banatuko da.	
AZALPENA			
<p>Talde bakoitza bi azpitaldetan banatuko da. Talde bakoitzak borobil bat osatuko du eta orkestrako musikariak izango dira, baina lehenago aukeratutako ikasle bat kanpora joango da. Ikasle hori kanpoan dagoelarik, musikarien artean zuzendaria esleituko dute. Orduan, musikari guztiek zuzendariaren erritmora dantzatu beharko dute. Jarraian kanpoan dagoen pertsona borobilera sartu beharko da eta mugimendu aldaketak kontuan edukiz, zuzendaria nor den asmatu beharko du. Mugimenduak, kioldesberdinak izango dira.</p>			
ATAL NAGUSIA			
1. JARDUERA   Txoko desberdinak			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimasioan.	Txoko bakoitzerako beharrezkoa den materiala.	Talde osoa bitan banatuko da, neskak eta mutilak.	15 minutu.
AZALPENA			
<p>Gela osoa bi zatitan banatuko da. Zati bakoitzean hiru txoko jarriko ditugu. Batean “nesken kirola” diren txoko desberdinak, hala nola, gimanasia erritmikoko uztailek, zintak eta baloiak, euskal dantza egiteko musika eta balleteko pausu desberdinak azkenengoan. Beste zatian berriz, “mutilen kirola” bezala estereotipatuak daudenak; futboleko baloiak, eskubaloiko baloiak eta azken txokoan esku pilotako pilotak.</p> <p>Jarraian, neskei mutilen zatian libreki jolasten utziko zaie eta nesken zatian mutilei. Irakasleak gizarte papera egingo du komentario desberdinak erabiliz neska eta mutilekin.</p>			
LASAITZE - FASEA			
1. JARDUERA   Hausnarketa.			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Ez da materialik behar.	Talde osoa batera.	15 minutu.
AZALPENA			
<p>Talde osoa batera bilduko da eta hausnarketa bat egingo dute. Bakoitzak haien txokoan nola sentitu diren adieraziz, besteen txokora pasa ezinik.</p>			

4. SAIOA			
Helburua: kirolean genero-rolen ezberdintasunez jabetzea.			
JARDUERAK			
BEROKETA- FASEA			
1. JARDUERA   Buztina, eskultura eta eskultorea.			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Begiak estaltzeko zapiak edo bendak.	Hirunaka.	30 minutu.
AZALPENA			
<p>Ikasleak hirunaka jarriko dira eta beraien artean rola banatuko dituzte; buztina, eskultura eta eskultorea. Eskultura den pertsonak bere gorputzaren bitartez postura bat hartuko du, eskultoreak begiak itxita dituelarik hau ukitzen hasiko da eta zein posiziotan jarri den asmatu beharko du. Ondoren, buztina hartu eta eskultura honekin ukitu duen eskultura berdina egiten saiatu beharko da.</p> <p>Hiru aldiz errepikatuko da prozedura ikasle guztiak rol guztietatik pasatzeko aukera izan dezaten eta gerora talde handiagoak osatuko dira. Talde horietan, eskultura eta buztin kopurua handitu egingo da, eskultore bakarra mantenduko da eta laguntzaile papera gehituko da eskultorea espazioan zehar mugiarazteko.</p>			
ATAL NAGUSIA			
1. JARDUERA   Eta nik nola egiten dut?			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Ez da materialik behar.	Talde osoan.	10 minutu.
AZALPENA			
<p>Ikasleak gimnasioan sakabanaturik ibiltzen joango dira, bakoitza bere erritmoan. Orduan, irakasleak ezagurri eta egoera desberdinak esango ditu eta hauek gelditu eta horiek interpretatu beharko dituzte. Ondoren ibiltzen hasiko dira berriro irakasleak beste esaldi bat esaten duen arte. Esaldien adibideak :<i>mutil batek korrika egiten duen bezala, neska batek korrika egiten duen bezala, mutilak boxeoa, neskek boxeoa...</i></p>			
2. JARDUERA   Zergatik?			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Ez da materialik behar.	Taldea osoan	10 minutu.
AZALPENA			



Aurreko jardueraren hausnarketa bat izango da. Gela osoa biribilean bildu eta irakasleak bolondresak aterako ditu erdira lehenago esan dituen esaldiak berriro interpretatzera. Bitartean, eztabaida sortuko da gelakideen artean, irakasleak gidari lana egiten duelarik.

### LASAITZE - FASEA

#### 1. JARDUERA | Piloten masajea

ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Musika, bozgorailua, koltxonetak eta pilota mota ezberdinak.	Binaka.	10 minutu.

### AZALPENA

Ikasleak binaka jarriko dira espazio osoan zehar banaturik eta koltxoneta bat hartuko dute. Bikoteko ikasle bat koltxonetaren gainean etzango da eta besteak zelaiaren erdian dauden edozein pilota hartuko lagunari masajea emateko gimnasioan musika lasaia martxan jartzen den bitartean. Denboraren erdia pasa ondoren aldaketa egingo da.

### 5. SAIOA

Helburua: gorputz-adierazpenaren bitartez genero-rolean egoeraren inguruko antzezpena prestatzea.

### JARDUERAK

#### BEROKETA- FASEA

##### 1. JARDUERA | Bankuan ordenatuz

ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Banku suediar bat.	Talde osoa batera.	15 minutu.

### AZALPENA

Gelakide guztiak banku baten gainean igota egongo dira eta helburua hitz egin gabe eta bankutik erori gabe, bankuan ordenatzea izango da. Ordena izan daiteke (adinaren arabera edo zaharretik gazteenera jartzea, izenaren lehen hizkiaren arabera ordenatzea, altueraren arabera...)

### ATAL NAGUSIA

##### 1. JARDUERA | Emanaldia sortuz

ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Ez da materialik behar.	5-6 pertsonako talde txikietan.	30 minutu.

AZALPENA			
Taldeka bilduko dira eta emanaldi, abesti, antzerki edo gustuko dutena sortzeko aukera izango dute. Horretarako gimnasioko material eta jantziak eskuragarri izango dituzte. Taldean adostu eta gidoi bat osatu beharko dute, haien emanaldia aurkeztu baino lehen.			
LASAITZE – FASEA			
2. JARDUERA   Hausnarketa			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Ez da materialik behar.	Talde osoa batera.	15 minutu.
AZALPENA			
Borobilean jarrita, saioan zehar, eta orain arte landutakoaren inguruan hausnartzea. Honekin batera, nola sentitu diren hausnartzeko ere baliagarria izango da. Horretarako irakasleak galdera lagungarriak egin ditzazke: “Nola sentitu zarete saioan zehar?”, “Gustora egon zarete?”, “Zer moduz moldatu zarete talde lanean?”...			

6. SAIOA			
Helburua: gorputz-adierazpenaren bitartez genero-rolen egoeraren inguruko antzezpena prestatzea.			
JARDUERAK			
BEROKETA- FASEA			
1. JARDUERA   Emanaldia prestatuz			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Emanaldirako beharrezkoa duten eta eskuragarri dagoen materiala.	5-6 pertsonako talde txikietan.	10 minutu.
AZALPENA			
Gimnasioa bitan banatuko da talde bakoitzak bere antzezpena presta dezaten. Aurreko saioan pentsatu, prestatu eta entseatuta zuten antzerkirako apaingarri guztiak jarri, hau da, gimnasioa antzerkirako girotu eta prestatu.			
ATAL NAGUSIA			
1. JARDUERA   Emanaldia iritsi da			
ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Emanaldirako beharrezkoa duten eta eskuragarri dagoen materiala.	5-6 pertsonako talde txikietan.	40 minutu.

## AZALPENA

Talde bakoitak prestatutako emanaldia eskeiniko die gainontzeko ikasleei.

## LASAITZE – FASEA

### 3. JARDUERA | Besarkada kolektiboa

ESPAZIOA	MATERIALA	ANTOLAKETA	DENBORA
Gimnasioan.	Ez da materialik behar.	Talde osoa batera.	10 minutu.

## AZALPENA

Talde guztiak elkartuko dira eta emanaldiez gustatu zaiena eta ikasi dutenaz hitz egingo dute. Iritzi ezberdinak plazaratu etapartekatzeko tarte izango da hau. Ondoren, guztien artean, eta eskerrak emateko besarkada kolektibo bat emango diote elkarri.

### III. ERANSKINA: Ebaluazio tresnak

Hauek dira erabiliko diren ebaluazio tresnak:

1. Irakaslearen errubrika
2. Saioen ikasleen autoebaluaketa
3. Taldeko koebaluaketa

#### 1.IRAKASLEAREN ERRUBRIKA

Irakaslea hurrengo errubrikaz baliatuko da ikasle bakoitzaren ebaluaketa aurrera eramateko.

LORPEN ADIERAZLEAK	HOBETU BEHAR DU	BIDEAN DAGO	OSO ONDO
Ez hitzeko komunikazioaren bidez, ikasleak bere eta bere ikaskideen gorputz eskema ezagutu eta honekin esperimintatzen du.			
Musikarekin batera, gorputza mugitu eta sentimenduak eta emozioak adierazten ditu.			
Ikaskideekin lan eginez eta ez hitzeko baliabideak erabiliz, produktu edota konposizio bat sortzen du.			
Gizartean eta kirol munduan ematen diren genero bereizketa eta diskriminazio egoerak identifikatzen ditu eta horien inguruan hausnartzen du.			
Taldeko kide bakoitzaren gaitasunak, ideiak eta adierazpenak onartu eta errespetatzen ditu.			
Oharrak:			

## 2.SAIOEN IKASLEEN AUTOEBALUAKETA

Saio bakoitzaren amaieran ikasle bakoitzak ondorengo taula beteko du, saioan egindakoaren inguruan hausnartzeko.

GALDERAK	1 GUTXI	2	3	4	5 ASKO
Irakasleak proposatutako jolasetan modu egokian jardun naiz.					
Jolasetan parte hartu dut.					
Ikaskideei lagundu diet.					
Gorputzaren eta mugimenduaren bidez ekintzak, sentimenduak, emozioak... adieraztea lortu dut.					
Orokorrean gustura sentitu naiz jolasetan.					
Hobetzeko proposamenak:					

### 3.TALDEKO KOEBALUAKETA

Azken saioetan zehar ikasleen talde txikietan lan egingo dutenez, antzezpenaren aurkezpena eta gero, ikasleek hurrengo fitxa hau beteko dute ikaskide bakoitzaren lana ebaluatzeko.

	1.Taldeki dea	2.Taldeki dea	3.Taldeki dea	4.Taldeki dea	5.Taldeki dea	6.Taldeki dea	7.Taldeki dea
Izena:							
Koreografiaren sorkuntzan parte hartu du.							
Ideen ekarpenak egin ditu.							
Taldearen funtzionamendua egokia izan dadin lagundu.							
Taldekideak errespetuz tratatu ditu.							
Generoari dagokionez, berdintasuneko jarrera erakutsi du eta jarrera ezberdinen aniztasuna onartu du.							
Taldekide honekin orokorrean gustura lan egin dut.							